

**DURANGO**

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea-OHIKOA  
Junta de Portavoces-ORDINARIA

Akta 2026eko apirilaren 27

Acta 27 de abril de 2026

**TOKIA / LUGAR:** MULTIMEDIA GELA/SALA MULTIMEDIA

**EGUNA / FECHA:** 2026/04/27

**HASIERA / INICIO:** 13:05etan/horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA/PRESIDENTA (EAJ-PNV):** Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea

**BOZERAMAILEAK/VOCALAS:**

EAJ-PNV: Doña Josune Escota Bisbal andrea

DES-SVD: Doña Jesica Ruiz Pérez andrea

EH Bildu: Don Iker Urkiza Quilez jauna

HE-ID: Don Jorge Varela Dorrio jauna

PP: Don Carlos David García Fernández jauna

**IDAZKARI AKZIDENTALA/SECRETARIA ACCIDENTAL:** Doña Ane Aldazabal Rodriguez

**KONTU-HARTZAILEA/INTERVENTOR:** Don Jokin Palacio Pérez

Bilkura hasi du 2. Alkateordeak **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)**, eguerdiko 13:05etan, eta bilkura honetako gai-zerrenda osatzen duten puntuak aztertu dira:

**BAT.- HALA BADAGOKIO 2026KO MARTXOAREN 23KO AKTAREN ZIRRIBORROA ONARTZEA:**

Bere horretan onartzen da.

**BI.- DATORREN ASTEAZKENEAN, 2026KO APIRILAREN 29AN, EGINGO DEN OHIKO UDALBATZAREN BILKURA PRESTATZEA:**

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)**, adierazi du lehenengo baztertuko dituztela Osoko Bilkurari dagozkion gaiak. Ez Ohiko Bilkurako puntua beranduago konbokatu zenez, hau gero komentatuko dutela.

Argitzen du puntuz puntu joango direla.

Abierta la sesión por la 2ª Teniente de Alcalde **Dña. Escota Bisbal, (EAJ-PNV)**, siendo las 13:05 horas, se pasa a tratar los puntos que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:


**UNO.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR, DE 23 DE MARZO DE 2026:**

Se aprueba en los mismos términos.

**DOS.- PREPARACIÓN DE LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA, A CELEBRARSE EL PRÓXIMO MIÉRCOLES, DÍA 29 DE ABRIL DE 2026:**

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)**, Manifiesta que, en primer lugar, se tratarán los asuntos relativos al Pleno. Dado que el punto de la Sesión Extraordinaria fue convocado con posterioridad, informa de que este será comentado posteriormente.

Menciona que irán punto por punto.



Lehenengo puntua akta onartzea dela dio, honek ezer berezirik ez daukala jakinaraziz.

Bigarren puntua, aipatzen du 2026ari dagokion Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen ordainsarien igoera dela. Komentatzen du suposatzen duela puntu hau azaltzea izango dela eta Varela Dorrio jaunari galdetu dio ea parte hartu nahi izango duen horri buruzko adierazpenen bat egiteko.

**Varela Dorrio jaunak (HE-ID)** betikoa egingo duela erantzun dio.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)**, adierazten du hirugarren puntua Durangoko Udalaren 2026-2028 Enplegu Publikoa Antolatzeko Plana onartzeko proposamena dela. Aipatzen du puntu hau Osoko Bilkuran sartu zela azkenean diktaminatu zelako, baina gaur bertan izan dutela Mahai Negoziatzailea 2026ko OPEarena onartzeko eta ohartu direla akats bat zegoela plan horren parrafo batean.

Jakinarazi du Giza Baliabide buruaren irizpena eskatu dutela eta honek ere akatsa dagoela baieztatu diela.

Komentatzen du sindikatu guztiak ados egon direla eta akats hori Enplegu Publikoa Antolatzeko Planean zuzenduko dela onartu dela Mahai Negoziatzailean.

Adierazi du gaur goizean Plan berria bidaliko zaiela berriro Osoko Bilkurako zinegotzi guztiei eta Mahai Negoziatzaileari.

Azaltzen du plan berria ez denez Osoko Bilkurarako diktaminatuta egongo, betiko moduan egingo dela, lehenengo urgentzia bozkatzeko dela eta norbaitek nahi badu hitz

Comenta que el primer punto es la aprobación del acta y comunica que no tiene nada de particular.

Expone que el segundo punto se refiere al incremento retributivo del personal funcionario y laboral del Ayuntamiento de Durango y de sus Organismos Autónomos correspondiente al año 2026. Señala que entiende que este punto será explicarlo y pregunta al Sr. Varela Dorrio si desea intervenir para realizar alguna manifestación al respecto.

**Don Varela Dorrio (HE-ID)** responde que hará lo de siempre.


2º La Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)**, señala que el tercer punto es la propuesta de aprobación del Plan de Ordenación del Empleo Público 2026-2028 del Ayuntamiento de Durango. Indica que este punto se ha incluido en el Pleno porque finalmente se dictaminó, pero informa de que hoy mismo han celebrado la Mesa Negociadora para aprobar lo relativo a la OPE de 2026 y se han dado cuenta de que existía un error en un párrafo de dicho plan.

Informa de que han solicitado el dictamen del responsable de Recursos Humanos y que éste también les ha confirmado la existencia del error.

Comenta que todos los sindicatos han estado de acuerdo y que, en la Mesa Negociadora, se ha aceptado que dicho error será corregido en el Plan de Ordenación del Empleo Público.

Indica que esa misma mañana se volverá a enviar el nuevo Plan a todos los concejales del Pleno y a la Mesa Negociadora.

Señala que, como el nuevo plan no va a estar dictaminado para el Pleno, se procederá como de costumbre, en primer lugar se votará la urgencia y, si alguien lo desea, podrá



# DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea-OHIKOA  
Junta de Portavoces-ORDINARIA

Akta 2026eko apirilaren 27

Acta 27 de abril de 2026

egin ahal izango duela. Aipatzen du ondoren azalpena emango dela eta bukatzeko talde guztiek txanda berdina izango dutela.

Jakinarazten du hurrengo puntuak ez duela ezer aipatzeko, bosgarren, seigarren eta zazpigarren puntuek ez daukatela ezer berezirik eta zortzigarren puntua, 2025-2027 Diru Laguntzen Plan Estrategikoaren aldaketarena suposatzen duela ere ez.

Adierazten du ez dakiela bederatzigarren puntuan, Barne-kontrolako eredua aldatzeko eta eguneratzeko proposamenean, norbaitek beste azalpen bat nahi izango duen Osoko Bilkuran, bestela ontzat emango dutela. Komentatzen du aurreko batzordean kontu-hartzailea ez zela egon eta adostu zutela zalantzarik izatekotan gaur Bozeramaileen Batzordean azalpena emango zela edo bestela Osoko Bilkuran. Aipatzen du azalpenen bat nahi izanez gero, egokiena izango litzatekeela orain ematea, Osoko Bilkura ez luzatzeko, jada Ez Ohiko Bilkura bat dagoelako egun horretan. Aipatzen du bestela azalpenak emantzat utzi daitezkeela.

Bozeramaileei galdetzen die ia zalantzarik daukaten honen inguruan, erantzuna ezezkoa izanik.

Argitzen du azalpen txiki bat emango dela Osoko Bilkuran Barne-kontrolako aldaketaren inguruan eta ondoren norbaitek parte-hartu nahi izanez gero, aukera izango duela.

Ondoren, aipatzen du, kontu ematearen inguruan, hau da, hamabi eta hamahirugarren puntuetan, azalpena Antolaketa Batzordean ez zenez eman, Osoko Bilkuran kontu-hartzaileak bai emango duela azalpen txiki bat denek azalpen zuzena izan dezaten.

intervenir. Explica que posteriormente se ofrecerá una explicación y, para finalizar, todos los grupos dispondrán del mismo turno de intervención.


Informa de que el siguiente punto no tiene nada que reseñar, el quinto, sexto y séptimo no tienen nada de especial y supone que el octavo punto, Propuesta de modificación del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango 2025-2027, tampoco.

Añade que desconoce si, en el noveno punto relativo a la propuesta de modificación y actualización del modelo de Control Interno, alguien querrá alguna explicación adicional en el Pleno o si se dará por buena la propuesta. Asimismo, comenta que en la anterior comisión el interventor no estuvo presente y que acordaron que, en caso de surgir dudas, hoy se ofrecería una explicación en la Junta de Portavoces, o, en su defecto, en el Pleno. Expone que, si desean alguna explicación, lo ideal sería que se realizara ahora para no prolongar el Pleno, dado que ese día también hay una Sesión Extraordinaria. Añade que, en caso contrario, podrían darse por realizadas las explicaciones correspondientes.

Pregunta a los portavoces si tienen alguna duda sobre esto, siendo la respuesta negativa.

Aclara que se dará una breve explicación en el Pleno sobre el cambio en el Control Interno y que si después alguien quiere participar, podrá hacerlo.

A continuación, señala que, en relación a la rendición de cuentas, es decir, en los puntos doce y trece, como no se dio la explicación en la Comisión de Organización, en el Pleno, el interventor sí ofrecerá una breve explicación para que todos dispongan de una información directa.



# DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea-OHIKOA  
Junta de Portavoces-ORDINARIA

Akta 2026eko apirilaren 27

Acta 27 de abril de 2026

Osoko Bilkura honetan ez duela beste ezer berezirik ikusten esaten du. Galderarik edo zalantzarik dagoen galdetzen du, erantzuna ezezkoa izanik.

Adierazi du puntu hau amaitutzat ematen dutela eta Ez Ohiko Osoko Bilkurarekin hasiko direla.

### **HIRU.-INTERESEKO GAIK:**

Ez dago intereseko gairik.

Honen inguruan, azaltzen du EH Bilduk Ez Ohiko Osoko Bilkura bat eskatu zuela. Hau aztertzen egon direla eta azkenean erabaki dutela plan hau ez dela dokumentu juridiko bat, baina hala ere ez dagoela ezer Osoko Bilkurak honen onartzea edo ez onartzea debekatzeko.

Aipatzen du galdera bat jaso duela. Gai hau EH Bilduk proposatutakoa denez, ia hauek aukera izango zuten honen inguruan azalpen bat emateko. Aipatzen du eztabaidatu dutela, ez delako mozio baten bezala proposatu, baizik eta Ez Ohiko Osoko Bilkura bezala. Balantzan jarri dutela alde batetik ROMek eskaintzen duen eskubidea edo kalifikazioa eta lehentasuna eman diotela eskatutakoari, azken batean eskubide bat delako Ez Ohiko Bilkura hau onartzea.

Esaten du, hau horrela onartu denez, beste Osoko Bilkura guztiak egiten diren moduan, behar izatekotan Sailaren arduradunak emango lukeela azalpena eta berak ez duela egoki ikusten beste azalpenik ematea.

Azaltzen du Alkateak irakurriko dituela kontuak. Aipatzen du proposamena dela lehenengo puntua ratifikatzea, bozketa eginez, eta bigarren eta hirugarren puntuak batera eztabaidatzea. Hau horrela izanda,

Menciona que no observa ningún otro asunto especial en este Pleno. Pregunta si existe alguna pregunta o duda, recibiendo una respuesta negativa.

Explica que se da por finalizado este punto y que se dará inicio al tema relativo al Pleno Extraordinario.

### **TRES.-ASUNTOS DE INTERÉS:**


No hay asuntos de interés.

En este sentido, informa de que EH Bildu solicitó un Pleno Extraordinario. Explica que han estado estudiando la cuestión y que, finalmente, se ha considerado que este plan no es un documento jurídico, si bien no existe nada que impida que el Pleno lo apruebe o no.

Ha explicado que ha recibido una consulta. Dado que este tema ha sido propuesto por EH Bildu, preguntan si tendrían la oportunidad de ofrecer una explicación al respecto. Explica que lo han estudiado, ya que la propuesta no se ha presentado como una moción, sino como un Pleno No Ordinario. En ese sentido, ha indicado que se ha puesto en la balanza, por un lado, el derecho que ofrece el ROM o la calificación y finalmente han dado prioridad a lo solicitado, ya que, en definitiva, la aprobación de esta Sesión Extraordinaria constituye un derecho.

Indica que, al haberse aprobado de esta manera, como se hace en el resto de Plenos, si fuera necesario, la persona responsable del Departamento ofrecería una explicación, y que ella no considera oportuno aportar una explicación adicional.

Explica que la Alcaldesa leerá las cuentas. Señala que la propuesta consiste en ratificar el primer punto mediante votación y debatir conjuntamente los puntos segundo y tercero. Siendo esto así, explica que en el debate se



# DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea-OHIKOA  
Junta de Portavoces-ORDINARIA

Akta 2026eko apirilaren 27

Acta 27 de abril de 2026

eztabaidan ohiko txandak egingo direla dio, bakoitzak bere txandan izango duela aukera bakoitzaren proposamenak azaltzeko edo aurkezteko, baina bakarrik ohiko txandan.

Gogoratzen du saiatu behar direla denborarekin zehatzak izaten, horren ostean beste Osoko Bilkura bat daukatelako, lehenengo Osoko Bilkura 15:00etan eta hurrengoa 17:00etan direlarik.

**Ruiz Pérez andreak (DES-SVD)** galdetzen du ia lehenengo puntuan bakarrik bozketa egingo den.

**Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)** erantzun dio lehenengo puntuan bozketa egingo dela eztabaida gabe.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** azaltzen du eurek eskatu dutela bigarren eta hirugarren puntuen eztabaida batera izatea, baina bai nahi dituztela puntuak aurkeztu.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** erantzuten dio aztertzen egon direla, baina ez dutela egoki ikusten azkenean Osoko Bilkura gabe delako.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** Adierazten du Osoko Bilkuran bezala egiten dela. Aipatzen du eurek, gaiaren arabera, gai hori aurkezten dutela.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** erantzuten dio hori egiten dutela Gobernu taldea direlako.

Urkiza Quilez jaunari gogoratzen dio lehen berarekin partekatu duela. Aipatzen dio Idazkariarengana joan dela eta berari kontsulta egin diola. Komentaten du Aldazabal Rodríguez andreak (Idazkari akzidentala) bere eritzia eman diola, ontzat eman duela eta horregatik azaldu duela.

seguirán los turnos ordinarios y que cada grupo, en su correspondiente turno, tendrá la opción de exponer o presentar sus propuestas, pero únicamente dentro del turno habitual establecido.

Recuerda que es necesario ser precisos con el tiempo, ya que posteriormente hay otro Pleno, estando previsto el primero a las 15:00 h y el segundo a las 17:00 h.

**Dña. Ruiz Pérez (DES-SVD)** pregunta si en el primer punto solo se va a proceder a la votación.

**Dña. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** responde que en el primer punto se va a votar sin debate.


**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** explica que ellos han solicitado que la discusión de los puntos segundo y tercero sea conjunta, pero que si quieren que ambos puntos se puedan presentar.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** le responde que lo han estado estudiando, pero que no lo ven adecuado porque al final se hace sin el Pleno.

**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** señala que se hace igual que en el Pleno. Menciona que ellos, según el tema, presentan ese tema.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** le responde que dicha forma de proceder corresponde al equipo de Gobierno.

Le recuerda al Sr. Urkiza Quilez que previamente lo ha compartido con él. Añade que ha consultado anteriormente a la secretaria y que la Sra. Aldazabal Rodríguez (secretaria accidental) ha emitido su opinión, que la ha considerado adecuada, motivo por el cual la ha expuesto.



**Aldazabal Rodriguez andreak (Idazkari akzidentala)** komunikatu du ez dutela ikusi ROMen arau espresurik modu horretara egitea ahalbideratzen duenik eta hori dela ondorioztatu dutena.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** adierazi du beste Osoko Bilkuretan egiten den bezala, berdin egitea eskatzen dutela.

**Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)** erantzuten dio Urkiza Quilez jaunari Ez Ohiko Bilkura EH Bilduk eskatu duela, eurek onartu, sartu eta deialdia egin dutela eta hor daudela 3 puntuak, baina inon ez duela esaten EH Bilduk puntu hauek aurkeztu behar dituenik. Aipatzen du berak irakurriko dituela puntuak eta gero zuzenean joango direla. Azaltzen du ez dela EH Bilduk aurkeztu duen mozio bat, mozio bat izango balitz azaltzeko aukera izango luketela eta ondoren eztabaida egingo litzatekeela, baina kasu honetan eurek eskatu dutena puntuak sartzea dela eta puntuak sartu dituztela.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** jakinarazi du ez dagoela arazorik Ez Ohiko Bilkura bertan behera uzteko eta mozio moduan sartzeko. Hau da, Osoko Bilkura honetarako sartzeta eta azalpena ematea mozio moduan, baina ez dutenez mozio moduan kalifikatu, Bilkura moduan tratatu behar dutela.

**Ruiz Pérez andreak (DES-SVD)** aipatzen du mozioa izan balitz, eurek alternatibaren bat aurkeztu ahal izango luketela. Adierazi du EH Bilduk erabaki duela Osoko Bilkura bat egitea, eta hau horrela izanda, eurek ez dutela aukerarik Osoko Bilkura horretan puntu gehiago sartzeko.


**Dña. Aldazabal Rodriguez (Secretaria accidental)** comunica que no se ha identificado ninguna norma expresa en el ROM que habilite esta forma de actuación, siendo esta la conclusión alcanzada.

**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** indica que, tal y como se hace en otros plenos, solicitan hacerlo del mismo modo.

**Dña. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** responde al Sr. Urkiza Quilez que el Pleno extraordinario ha sido solicitado por EH Bildu, que el equipo de Gobierno ha aceptado la petición, ha tramitado la convocatoria y ha incluido los tres puntos. No obstante, señala que en ningún momento se establece que EH Bildu deba presentar dichos puntos. Añade que ella procederá a la lectura de los mismos y, a continuación, irán directamente. Explica que no se trata de una moción presentada por EH Bildu, ya que, de ser así, tendrían la oportunidad de exponerla previamente y abrir el correspondiente debate. En este caso, indica que lo que ellos han solicitado ha sido la inclusión de los puntos, que han sido incorporados.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** informa de que no existe inconveniente en suspender la sesión extraordinaria y tramitar el asunto en forma de moción, es decir, incorporarlo al Pleno y proceder a su exposición como tal. No obstante, señala que el asunto no ha sido calificado como moción, por lo que debe ser tratado como Pleno extraordinario.

**Dña. Ruiz Pérez (DES-SVD)** Informa que, si se hubiera tramitado como moción, se habría podido presentar alguna alternativa. Menciona que EH Bildu ha optado por la celebración de un Pleno extraordinario y que, en ese caso, ellas no tienen la posibilidad de incluir nuevos puntos en el orden del día.



**Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)** gogorarazten dio Urkiza Quilez jaunari mozio bezala aldatzeko aukera dutela.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** konfirmatu du ez dutela moziora aldatuko, Ez Ohiko Bilkura bezala aurkeztu dela eta horrela egingo dela.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** aipatzen du onartuta dagoen plana azaltzeko txanda espezifikorik ere ez dagoela.

**Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)** adierazi du txanda bat izango dutela besteei bezala.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** dio gainerako bilkuretan, idatziz egiten dela eskaera. Gainerako bilkuretan puntuak aurkezten direla, beraz honetan berdin egin beharko litzatekeela. Kasu honetan, oposizioak eskatutako Osoko Bilkura dela.

**Ruiz Pérez andreak (DES-SVD)** Urkiza Quilez jaunari erantzuten dio eskaera hau mozio batean egin behar zutela, Orain eurek ez dutela beste punturik sartzeko aukerarik, osoko bilkura bezala aurkeztea erabaki dutelako.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** jakinarazten du ez dela lehenengo aldia holako eskaera bat egiten dutela, aurretik egin direla Ez Ohiko Ohiko Bilkurak aurkeztu diren gaiekin eta ez zela ROM izatea edo ez izatearen kontua.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** adierazi du ez daukala inolako eragozpenik, sarrera bat egiteko arloko arduradun gisa, baina Gobernu dela aurkezten duena.

**Dña. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** le recuerda al Sr. Urkiza Quílez que existe la posibilidad de modificarlo a una moción.

**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** confirma que no se va a tramitar como moción, que ha sido presentado como Pleno Extraordinario y que así se procederá.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** señala que no existe un turno específico para la explicación del plan aprobado.


**Dña. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** indica que dispondrán de un turno de intervención como el resto.

**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** explica que, en el resto de sesiones, las peticiones se formulan por escrito y se presentan los puntos, por lo que en esta ocasión debería procederse de igual manera. Añade que se trata de un Pleno solicitado por la oposición.

**Dña. Ruiz Pérez (DES-SVD)** responde al concejal Urkiza Quílez que esta petición debería haberse formulado mediante una moción y que, en este momento, no existe la posibilidad de incluir ningún otro punto, dado que se ha optado por su tramitación como Pleno extraordinario.

**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** comunica que no es la primera vez que se formula una petición de este tipo, dado que con anterioridad se han celebrado sesiones extraordinarias presentando los temas, y que no se trataba de una cuestión de existencia o no del ROM.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** señala que no tiene ningún inconveniente en realizar una introducción en calidad de responsable de área, aunque recuerda que es el Gobierno el encargado de la presentación.



# DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza  
Secretaría

Bozeramaileen Batzordea-OHIKOA  
Junta de Portavoces-ORDINARIA

Akta 2026eko apirilaren 27

Acta 27 de abril de 2026

**Ruiz Pérez andreak (DES-SVD)** aipatzen du puntuak aurkezten direnean, guztiz objektiboa dela puntuen aurkezpenean ematen den datua.

**García Fernández jaunak (PP)** komentatzen du alde batetik Urkiza Quilez jaunak Osoko Bilkura eskatzeko eskubidea daukala. Oro har, gai-zerrenda alkatearen eskumena dela.

**Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)** esaten du kasu honetan ez dela horrela, gai-zerrenda euren proposatutakoa dela.

**Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV)** erantzuten du gai-zerrenda kasu honetan EH Bilduk proposatzen duela, baina gero Osoko Bilkuraren antolaketa alkatetzarena dela. Ezagutzen ez zuten egoera honen aurrean, Idazkaritzan galdetu dutela Osoko Bilkura hau nola antolatu ahal zitekeen eta hori izan dela erabakia.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** galdetzen du ia zeozer gehiago dagoen honen inguruan.

**García Fernández jaunak (PP)** galdetu du dokumentazioak zein lotura juridiko daukan.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** eta **Aldazabal Rodriguez andreak (Idazkari akzidentala)** erantzun diote ez daukala inolako lotura juridikorik.

2. Alkateordeak, **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** aipatzen du zehazki Mahaian onartu zen plana onartuta egongo dela, hemen onartuko litzatekeen plana bezala, onartuz gero. Ez daukala inolako lotura juridikorik.

Jakinarazten du etxebizitzaren mahaian onartu ziren planeko neurrietako bakoitza izapidetzen jarraitu beharko dela onartzen

**Dña. Ruiz Pérez (DES-SVD)** menciona que, cuando se presentan los puntos, el dato que se ofrece en la presentación es totalmente objetivo.

**Don García Fernández (PP)** comenta que el concejal Urkiza Quilez tiene derecho a solicitar la celebración del Pleno. Asimismo, señala que, con carácter general, la competencia para fijar el orden del día corresponde al Alcalde.

**Don Urkiza Quilez (EH Bildu)** señala que, en este caso, no es así, ya que el orden del día es el propuesto por ellos.

**Dña. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV)** responde que el orden del día en este caso lo propone EH Bildu, pero que luego la organización del Pleno corresponde a la alcaldía. Ante esta situación que desconocían, han preguntado en Secretaría cómo se podía organizar este Pleno y que esa ha sido la decisión.


La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** pregunta si hay alguna cuestión más al respecto.

**Don García Fernández (PP)** pregunta por la vinculación jurídica de la documentación.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** y **Dña. Aldazabal Rodriguez (Secretaría accidental)** le responden que no tiene ningún vínculo jurídico.

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** añade que el plan que se aprobó en la Mesa, en concreto, estará aprobado, al igual que el plan que se aprobaría aquí en caso de ser aprobado y reitera que no tiene ningún vínculo jurídico.

Informa de que cada una de las medidas del plan que se aprobaron en la Mesa de Vivienda deberá continuar su tramitación una vez sean



direnean. Dirulaguntza dena Diru Laguntzen Plan Estrategikoa aldatu egingo duela, ordenantza bada, izapide guztiak ordenantza berarekin joango direla, eta horrela, adostuta dauden neurri guztiekin.

aprobadas. Señala que la que sea subvención modificará el Plan estratégico de subvenciones, que, si se trata de una ordenanza, todos los trámites se realizarán mediante la misma ordenanza, y así sucesivamente con todas las medidas que estén acordadas.

#### **LAU.-ESKAERAK ETA ITAUNAK:**

2. Alkateordeak **Escota Bisbal andreak (EAJ-PNV)** galderarik dagoen galdetu die bertaratuei. Ezetz erantzun diote, beraz, batzarra amaitutzat eman du.

#### **CUATRO.-RUEGOS Y PREGUNTAS:**

La 2ª Teniente de Alcalde, **Dña. Escota Bisbal (EAJ-PNV)** pregunta si hay dudas a los asistentes. Le responden que no, por lo tanto da por finalizada la reunión

Eta gai-zerrendan jasotako gaiekin amaitu denez, 13:22etan, Lehendakari andreak, bilkura amaitutzat eman du, eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren guztiaren fede ematen dut.

Y habiendo finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 13:22 horas, por la Presidenta, da por finalizada la sesión; de todo lo cual yo, como Secretaria, doy fe.

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia

Josune Escota Bisbal

Jesica Ruiz Pérez

Jorge Varela Dorrio

Iker Urkiza Quilez

Carlos David García  
Fernández

Ane Aldazabal Rodriguez

Jokin Palacio Perez